

«HISTORIKARA» MAROKON

Lurrikarak Afrika iparraldeko herrialdearen ondare historiko aberatsaren bihotza jo du

Irailaren 8an Atlaseko hainbat inguru astindu zituen lurrikara bortitzak larri kaltetu ditu herrialdeko leku historiko garrantzitsuak, duela zortzi mende baino lehenago eraikitakoak. Batzuk hondamen egoeran geratu dira; hala nola, Tinmel meskita, XII. mendeko eraikin esanguratsua, Gizateriaren Ondare izendatua.

Lurrikarak Al Haouz, Tarudant eta Marrakex eskualdeak jo zituen, sinbolismo historiko handiko gunek, Marokoko inperio garrantzitsuenen feudoak baitziren Erdi Arotik, almorabideekin (XI. mendea) hasita, almohadeekin (XII. mendea) jarraituz eta saadia rrekin (XVI. mendea) amaituz. Mugimendu erlijioso-inperialista haiek meskita, eraikin eta kasbah (gotorlekuak) ugari utzi zituzten, mendeen joanean iraun dutenak. Baina batzuek ez dute lurrikara gainditerik izan.

Marokoko Kultura Ministerioiko iturri batek EFE agentziari azaldu dionez, tragedia-
ren ondoren, kaltetutako monumentuen lehen inbentarioa egin da, Marrakex, Tarudant, Al Haouz eta Ouarzazate guneeetan.

«Gaur egun, ondarean adituak diren eta eremu horietako monumentuak sakon aztertu dituzten ministerioko arkitektoek osatutako misio bat dago han bertan», adierazi du iturri berak. Marokoko Kultura Ministerioak azpimarratu du txosten hori datozen egunetan amaituko dela eta modu ofizialean jakinaraziko dela, giza kalteei buruzko lehen fasea behin bukatuta.

UNESCOK Magreben duen ordezkartzaren eskualdeko zuzendaria, Eric Falt, hondamendiaren biharamunean Marrakexera joan zen, 1985. urtean Gizateriaren Ondare izendatu zuten hirira –leku historiko garrantzitsu ugari biltzen ditu–, eta «eragina espero baino askoz handiagoa» zela deitoratu zuen.

Arduradunak pitzadura handiak antzeman zituen Koutoubia meskitaren dorrean: XII. mendean eraiki zuten, “hiri okrea”ren ikurtzat hartzen dute eta antz handia du Sevillako Giraldaekin.

Era berean, Fna plaza mitikoan, ondoko Jarbouch meskita erabat suntsitu zela, pitzadurak agertu direla eta harresien zatiak erori zirela aipatu zuen. Mellah auzo juduan ere kalte handiak izan dira; bertako etxe zaharrak suntsituta daude.

 **ONDAREA** / Dabid LAZKANOITURBURU

Lurrikara handi batean lehen kaltetua herri xumea da; batez ere, herrialde txiroetan. Baina historia luzea duten herrialdeetan ondare historikoan ere eragina izugarria izaten da; batzuetan, konponezina. Marokoren kasua da hori. Balio historiko handiko monumentuak eta eraikinak oso kaltetuak izan dira.

Lurrikararen ondoren, “hiri okrean”, zenbait monumentu itxi dituzte; hala nola, Badi jauregia (XVI. mendekoa) eta Bahia jauregia (XIX. mendekoa). Azkenekoan, EFEk kalteak antzeman zituen; besteak beste, hautsitako erlaitz bat eta, albo bateko hormaren ondoan, antzinako etxeak erabat kolapsatuta.

Abderrahim Kassouk, ondare arkitektonikoko espezialistak, EFERi azaldu dionez, kalte handiena jasan duen monumentua Tinmelgo meskita da, lurrikararen epizentrotik kilo-

metro gutxira zegoena, eta adobez eta zurez eraiki zutena.

«Balio historiko handiko monumentua da, eta ia guztiz suntsituta dago. Eraikinaren arkuak, hormak eta minaretea erori egin dira», adierazi du Monumentuen eta Lekuen Nazioarteko Kontseilua (ICOMOS) GKEaren filialeko idazkari nagusiak. Lurrikara gertatu eta biharamunean egin zuen bisita bertan.

Abderrahim Kassouk adierazi du beste aditu-misio bat hirlaren amaieran iritsiko dela inguru horretara, kalteei buruzko txosten zehatz bat egiteko, hainbat herrialdetako adituekin lankidetzan; besteak beste Estatu espainoletik etorritakoekin.

AL ANDALUSEN ERAGINA

Tinmel almohadeen inperioaren feudoa izan zen XII. mendearen hasieran, eta Mahdi Ibn Toumert dinastiaren sortzailearen omenez eraiki zutenez, konnotazio espiritual indartsuko eremua da, batez ere inperio hartako lehen hiru kalifen mausoleoak hartzen dituelako.

Jaafar Kansoussi Marokoko hegoaldeko ondare arkitektonikoko adituaren iritziz, garai hartan hiri horrek eragin handia izan zuen Afrikako iparraldean gaur egun Egiptok hartzen duen eremuarekiko mugaraino, hegoaldean Senegalera eta iparraldean Iberiar Penintsularaino, Al Andalusen garaian.

Tinmelgo meskitaz aparte, beste leku historiko garrantzitsu batzuk ere kaltetuak izan direla ohartarazi du Kansousik; hala nola, Ouarzazateko kasbah ospetsua edo Tarudanteko harresi ezaguna, XVI. mendeko saadiarren garaiakoa, 7 kilometro baino gehia-

Neskato bat Marrakexeko kasbahtik ihesi.
Fadel SENNA | AFP



Lurrikarak Al Haouz, Tarudant eta Marrakex eskualdeak jo zituen, sinbolismo historiko handiko guneak, Marokoko dinastia nagusien feudoak baitziren Erdi Arotik

Almorabideen, almohadeen eta saadiarren mugimendu erlijioso-inperialistek meskita, eraikin eta kasbah (gotorlekuak) ugari utzi zituzten, mendeen joanean iraun dutenak

goko perimetroa eta 8 metro baino gehiagoko garaiera duena, eta askoren ustez, Afrikako harresi handiena.

«Lurrikara kolpe sakona izan da Marokorentzat, eta herrialdearen historiako urrezko garai bat gogorarazten duten monumentuei eragin die, zortzi mende baino gehiago iraun duten eraikinei», deitoratu du adituak.

ALMORABIDEAK

Almorabideen mugimendua- ren izena ‘al-murabi un’etik dator (marabuta), eta Sahara- tik etorritako talde nomadeta- tik sortutako moje-soldaduei egiten die erreferentzia.

Almorabideek islamaren in- terpretazio zorrotza defendatu zuten, eta beren agintaritzaz- pean jarri zuten musulmanen mendebalde ia osorik XI. eta XII. mendeen artean. Inperio zabal hura gaur egungo Men- debaldeko Saharan, Maurita- nian, Aljerian, Marokon eta Iberiar Penintsularen hegoal- deko erdialdean hedatu zen, batez ere.

Mendebaldeko Saharako berbere (amazig), tribu noma- da eta gameluzaleen artean sortutako mugimendu erlijio- so eta politiko hark Magrebe ko mendebaldean hedatzea lortu zuen –mende batzuk ge- roago Maroko modernoa izan- go zena lehen aldiz bateratu- ta– eta eskualdean islamaren

aldaera bakarra ezarri zuen, suni malikiarra.

ALMOHADEAK

Almohadeak (arabieraz, “Jain- koaren batasuna aitortzen du- tenak”), 1147tik 1269ra Afrika iparralde eta Iberiar Penin- tsularen hegoaldea mendera- tu zituen beste dinastia berbe- re bat izan zen.

Almohadeak egungo Maro- kon sortu ziren XII. mendean. Muhammad ibn Tumartek mugimendu erlijioso bat sor- tu zuen. Bere jarraitzaileek Ibn Tumart “mahdi” izendatu zu- ten –xiiten sustrai ideologikoa du “mahdi”-en inguruko si- nesmenak, nahiz eta sunis- moak ere onartzen duen– eta musulman guztiak deitu zi- tuten fedearen iturrietara itzul- tzeko, hau da, Koranera.

Funtsean, mugimendu puri- tanoa eta erreakzionarioa zen, Jainkoaren izaera bakar eta gorpuzgabea azpimarratzen zuen eta arau islamikoak zo- rrotz betetzearen alde egiten zuen. Eurak bezain ortodo- xoak ziren almorabideei Kor- narekin bat ez zetozen herri ohiturak ez eraldatu izana le- poratu zieten.

SAADIARRAK

Saadiarrena gaur egungo Ma- rokon XVI. mendetik XVII.era agindu zuen arabiar jatorriko dinastia bat izan zen. Dinas- tiak Hiyaz eskualdetik zetorre- la zioen eta Mahomaren ondo- rengoak zirela, nahiz eta jatorria egungo Marokoko he- goaldean izan.

Saadiarrek krisia baliatu zu- ten boterera heltzeko. XV. mendearen amaieran, espai- niarrek, portugaldarrek eta otomandarrek garnizioak eza- rri zituzten lurraldean, hase- rrea piztuta, eta erlijio liska- rrak nagusitu ziren orduan.



Goitik behera, Addasil herrian, Tikht herrixkan. Marrakex hirian eta Amerzegan herrian kalteak nabariak dira. AFP